



## Aldaketak unibertsitatean

**A**zken aldian aldaketak gertatzen ari dira Hego Euskal Herriko unibertsitateetan. Uztailaren amaierako hauteskunde espainiarren aurrerapenak aldaketa horietako batzuk azkartu zituen, eta beste batzuk gelditu edo atzeratu. Espainiako aurreko koalizio gobernuan unibertsitateen alorra Podemosen esku zegoen, eta alderdi moreak zenbait proposamen zituen esku artean unibertsitateetako egoeran eragiteko. Azpimarratzekoa da unibertsitateetako araudi orokorre berruzko erabaki garrantzitsuenak Euskal Herritik kanpo hartzen direla; bestela esanda, burujabetza maila ahula dugula goi-ikasketa eta ikerketaren arloan.

Aurrera egin ez duten proiektuen artean hezkuntza alorreko unibertsitate ikasketen erreforma saiakera dugu, maila publikoan ia oihartzunik izan ez duena. Haur eta Lehen Hezkuntzako titulazioen aldaketa sakona proposatu zen otsail-martxoan aldean. Proposamena Podemos bezalako alderdi batek bultzatu arren, hezkuntzaren ikuspegi nahiko akritikoa gailentzen zen bertan, nire ustez (edukietan klase soziala edo desberdintasun sozioekonomikoak aipatu ere egin gabe, adibidez). Baina, horrez gain, izaera zentralizatzailea ere bazuen, orain arte baino eduki gehiago erabakitzen baitziren Espainiatik, eta unibertsitateetatik bertatik eta, gure kasuan, Euskal Herritik edukiak zehazteko gaitasuna izugarri mugatzen zen.

Proposamen hori, hainbat arrazoi

Espainiako Estatuko beste unibertsitate askotan LOSU prekaritatea mugatzeko tresna izan badaiteke ere (hala izatea espero dut), gurean lan baldintzak kaltetzeko tresna da

tarteko (besteak beste, aurkakotasun handia eragin zuelako), kaxoian gorde bazen ere, ez da berdin gertatu oihartzun handiagoa izan duen LOSU unibertsitate lege berriarekin. Legea egiteko hainbat arrazoi mahai gaineratu ziren: irakasle eta ikertzaileen lan baldintzak hobetzea, unibertsitateko gobernantza demokratizatzea, eta abar. Araudiak, noski, badu sarrera bat, non unibertsitateak finantzaketa handiagoa behar duela adierazten den, Europako parametroetara gerturatzen joateko. Zehazki, BPGaren %1 unibertsitate bideratzeko asmoa adierazten da (egun EAEn, adibidez, %0,4 erabiltzen da horretarako). Esan bezala, baina, asmo horiek ez dute lege izaerarik.

LOSU indarrean dago, eta aplikatzen hasi da. Bere helburu garrantzitsuene-



IKER IRAOLA ARRETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

takoari dagokionean, langileen prekaritatea mugatzeari dagokionean, egoera paradoxikoa gertatu da. EHUko sindikatuek eta Langile Prekarioen Koordinadorak salatu duten bezala, ordezkapenen lan baldintzak izugarri okertzen hasi dira lege berria indarrean sartu orduko. Ordezkapenetan, hemendik aurrera, irakaskuntza orduak soilik ordainduko dira, eta horrek soldatak asko jaitea ekarriko du. Irakaskuntzaren kalitatean ondorioak ere izango dituela esan gabe doa. Egoera paradoxikoa dela aipatu dut lehen, berez lan baldintzak hobetzeko xedea zuen lege bat erabiliko baita, EHUren kasuan, lan baldintzak izugarri kaltetzeko.

Egia esan, legearen beste interpretazio bat egin zitekeen. Hala egitea espero dut, bestela aipatu eragileek adierazi duten bezala, udazkenean gatazka piztuko baita EAeko unibertsitate publikoan.

Baina, horrez gain, auzi honek hasieran aipatutako subiranotasun faltarekin ere lotura badu. Eta ez soilik Euskal Herritik kanpo erabakitako lege batez ari garelako, baizik eta beste lurralde batzuetako beharrak kontuan hartuta egindako araudia delako. Espainiako Estatuko beste unibertsitate askotan prekaritatea mugatzeko tresna izan badaiteke ere (hala izatea espero dut), gurean lan baldintzak kaltetzeko tresna da, momentuz; eta, edonola ere, ez da gure beharrianetarako tresna eragin-korra izango. ●